

Bigarren eskuko liburuaren azoka solidarioa egingo dute igandean Berangon

Bigarren eskuko liburuaren azoka solidarioaren hirugarren edizioa igande honetan, apirilak 17, izango da Berangoko pilotalekuan. Euro bateko prezio sinbolikoan argitalpenen bat erosteko aukera ematen du udal ekimen horrek. Batutako dirua Tierra de Hombres elkartearentzat izango da aurten. Jardunaldian zehar neska-mutilentzako ekimenak ere izango dira. Goizez, tailerrak eta ludoteka ibiltaria egongo dira. 18:30ean, berriz, 'Moviendo el esqueleto' izenburuko dantzaldia izango da, puzgarri eta irakurketa txokoarekin batera. Apirila Liburuaren Hilabetea denez, tailer bereziak izango dira Berangoetako Haur Liburutegian astelehen arratsaldetan, eta ipuin kontalaria bihar. Maite Arresek 'Txoritxo batek esan dit' ikuskizuna eskainiko du euskaraz, 18:30ean, Berangoetan. 3 eta 10 urte arteko neska-mutilei eskainita egongo da saioa. Argazkian, jendea liburuei adi eskualdeko azoka batean.

Berangoko neska-mutilen artean irakurtzeko ohitura bultzatuko du Haur Liburutegiak, hilabete honetan. Asteleheneretik ostiralera egoten da zabalik, 17:30etik 20:00etara, eta sartzera doakoa da. 1998 eta 2007 urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago, baina aita-amentzako ekimenak ere izaten dira. Hilabetean, liburuaren bat gomendatzen dute, adinen arabera; baita webguneren batzuk ere.

Apirilerako euskalaria.org eta irakurzale.mundua.com aukeratu dituzte. Horretaz gain, inguruko herrietan egon daitezkeen txikientzako ekimenen berri ematen dute. Astelehenero tailerrak egoten dira arratsalde guztian zehar, Berangoetako kultur etxeko txoko horretan. Hilabete bakoitzeko bigarren eta azken ostegunean, oraindik 3 urte bete ez dituzten Irakurtzen hasi Aurretikoen eguna egiten dute. Gurasoak Liburutegian ekimenak, berriz, hileko azken asteazkenean Haur Liburutegian geratzeko aukera ematen die aita-amei, beraien seme-alabak 1998 eta 2007 urteen artean jaio badira. Azkenik, Gurasoak Ipuin-kontalari ekimenak hileko azken ostiraletan istorioak kontatzeko aukera ematen die aita-amei. Kasu horretan, aurretik abisatu behar zaio Haur Liburutegiko arduradunari.